

Net Hurbil

PELLO ZUBIRIA

Solid'Arles-ek lotu ditu laborariak eta kaletar xumeak

Hirietako jende arruntek gero eta zailago daukate kalitate oneko jakiak eskuratzea. Baserritarrek, berriz, ezin dituzte uztak prezio txukunean merkaturatu. Batzuk eta besteak elkarrenganatzeko ahaleginean ari dira Probenzako Arles hirian. Tanta bat itsaso zabalean, baina tanta bat haboro.

BARAZKIRIK EZ DU JATEN KALETAR askok. Langabezian daudenek, pentsio txikiak kobratzen dituzten zaharrek, eta berdin zorretan itota patrikako sosak banan-bana kudeatu behar dituzten langile prekarioek, horiek eta beste askok eguneko otorduak pran-tatzerakoan uko egiten diete fruituei eta barazkiei. Bitartean, komertzializazioa den kate luzearen beste muturrean, laborariak ez dira iristen beren lanetik bizitzera. Soluzioak erraza irudi luke: baserritarrek herrian saldu dezatela eta kaletarrek hurbileko baserritarri erosi. Baina mende luzez praktikatu den komertzio hau aspalditik dago etenda.

Azalera handiko komertzioak bihurtu dira jakien salerosketaren monopolio. Hiri handietako auzo askotan komertzio txikiak aspaldi desagertu ziren, eta auzo berri franko batere merkataritzarik gabe antolatu dituzte. Azken urteotan, alternatibetan sinesten duten nekazari eta kontsumitzaileek beren arteko lotura berreraikitzeke taldeak antolatu dituzte, oraindik minoritario direnak.

Zuzeneko salmenta eredu bat baino gehiago bada munduan. AEBetan, *Community Supported Agriculture* esaten zaio. Frantzia milaka batzuk dira AMAP eta antzeko egiturak. Euskal Herrian "saskiak" eta "otarrak" ugari-tzen ari dira pixkanaka. Horietan kontsumitzaile taldeak lotura berezia era-

tzen du baserritar talde txiki batekin, kalitatean eta prezio egokian oinarrituta. Kasu bakanagoetan kontsumitzaileak dira baserriko negozioaren jabe nekazariarekin batera, kooperatiban. Hauetan, bada noiztenka kaletarrei baserrian laguntzeko eskatzen dienik.

Probenzako Arles hirian -50.000 biztanle, Rodano ibaiaren bokalean dago Marseillatik hurbil, famatua da erromatarrek utzitako eraikuntzengatik eta uda oroz han izaten diren *corrida* entzutetsuengatik- antolatu duten *Solid'Arles* egiturak badu ezaugarri bat berezi egiten duena: herritar xumeen-ekiko elkarlana.

Altermundialisten artean erreferentzia den ATTAC mugimendua -finantz mugimendu guztien gaineko zerga aldarrikatu du azken krisia sortu baino askoz lehenago- dago tartean. ATTAC pentsamendu korronte baino askoz gehiago da, Frantzia osoan solidaritate ekintzetan eta bazterketaren kontrako mugimenduan aurki daitezke bere militantek, asko ezkerreko ekintzaile zailduak.

Bi urtez aztertu dute gaia ATTA-Ceko jendeek eta eskualde honetako Confederation Paysanne -horren partaide da hemengo ELB- nekazarien sindikatukoek. 2007an zehaztu zuten zer eraiki zitekeen: saltoki ireki bat, bertako eta garaiko fruitu, barazki eta bestelako produktuak bai ekoizleentzako eta bai erosleentzako pre-

La Provence egunkariko argazkian bi muturretakoak Solid'Arleseko langileak dira, Sophie Bovero eta Joël Marnetto; erdialdeko biak borondatezko laguntzaileak dira, Sylvie eta Betty. Arleseko gune honek bere baitan biltzen ditu azken urteotan indar hartuz doazen pentsamendu eta ekintzako bi korronte. Batetik, nekazariak eta kontsumitzaileak elkarlanean jartzeko mugimendua, kooperatiba eta elkarte askotan mamitua, herrialde anglosaxoietan "Community Supported Agriculture" eta gure inguruetan AMAP, "saski", "otar", "kooperatiba" eta beste izenez ezaguna. Bestetik, jende ahulenen bazterketa gainditzeko herri eta auzoetan lan egiten duten mugimendu sozialak, kasu honetan ATTAC mugimenduko lekuko taldea.

zio egokietan eskainiko zituena. Solidaritatea bermatzeko, erosleen arteko egoera bereziak kontuan hartu behar-ko ziren. 30 pertsona, ekoizle, kontsumitzaile eta militante, aritu dira proiektua gorpuzten.

Joan den maiatza hondarrean inauguratu zuten *Solid'Arles, de la terre a l'assiette* -"lurretik platerera" dio bigarren zatiak- goiburu duen komertzioa Grif-feuille auzoan. Prestaketa lanak, lehen-dabiziko eguneko giroa, operazioan protagonistak direnak... denak biltzen dituen bideoa ATTAC erakundearen webgunean dago ikusgai.

Kolibri txikiaren ahaleginak

Solid'Arles, de la terre a l'assiette-ren komertzioan erosteko bazkide izatea eskatzen da. Euro sinboliko bakarra kostatzen den bazkide-tza da erosle, saltzaile eta militanten arteko lotura. Dagoeneko 1.800 dira. Horiei Arles eskualdeko baserrietako produktuez gain, elikadurarekin lotutako ekitaldiak eskaintzen zaizkie: baserritarre-kiko eztabaidak, etxaldeetara bidaiak, sukaldaritza ikastaroak, jaki errezeten elkar-trukaketak...

25 laborari dira sarean partaide, beraiek ekarriz beren produktuak den-daraino. 150 jaki daude erostgai. Hasi-rako hilabeteetan garaiko barazkiak hasi ziren ekartzen, eta geroztik beste-lako mozkinak gehitu dituzte: arrau-tzak, eztia, gaztak, olioak, eta abar.



Prezioak alde zuzenetik hitzartuak daude elkartean. Erabakietan parte hartzen dute nekazariak eta ATTACeko boluntarioek. Sare honetan 20 militante ari baitira borondatez. Gainera bi pertsona kontratatu dituzte komertzioa era profesionalean zaintzeko.

Astelehenetik larunbatera zabalik, egunean dendatik bataz beste 150 pertsona inguru pasatzen omen da. Erosi beharrekoak hartu eta konturarrerara joaten direnean ordainketak egitera, agirian azaltzen zaio produktu bakoitza nongoa eta nork egina den, nekazariari zer pagatu zaion, denda ibilarazteko erantsi zaion %5 zenbat den eta zein tarifatan kobratu zaion, *Conso 1* ala *Conso 2* tarifa.

Lehen tarifa da edozein herritarri aplikatzen zaiona. Bigarrena merke

edo solidaritatezkoa da: lanik gabe edo egoera zailtan daudenentzako. 50 inguru *tarif réduit* zeuden udan. ATTACeko boluntarioek kudeatzen dituzte, administrazioaren gizarte laguntzaileekin batera. *Solid'Arleseko* lehendakari Henri Tisseyre-k *La Provence* egunkariari argitu dionez, “familia asko gaizki elikatzen dira diru gutxiagatik daukate-lako” eta antolakizun hau bezalakoek lagundu lezakete elikadura mailako bazterketa arintzen.

Antolatzaileak harro daude bazkideen erdia bertakoa delako, Griffueillekoa. “Hurbileko zerbitzua eman nahi dugu eta aldi berean nahasketa sustatu”. Frantsesez *mixité* esaten diote jatorri ezberdineko herritarrak harremanetan bizitzeari. Sukaldari-

tzako ikastaroekin eta elikadurari buruzko eztabaidekin, berriz, lortu nahiko lukete “jendeak kozinatzen eta ‘egoki jateko’ kultura berreskuratzeko, elikadura burutsu bat”.

ATTACekoek *Solid'Arles*en inaugurazioaz weberatu duten bideoan saltokiko giroa ikusten da: azoka herrikoi baten antza handiagoa du, normalean erdi mailako bezeroak biltzen dituen produktu ekologikoen denda batena baino.

Nekazari bat mintzo da *offean*: “Baserritarrari gogor egiten zaio oihartzua zenbat ordaindu dion berari banatzaile handiak, eta hori bera zenbatean dagoen gero saltokietan. Adibidez, meloia luxuzko produktua dela dirudi, nahiz eta gure eskualdean ohiko fruitua den. Berdin tomatea edo beste zernahi”. Baina kontsumitzaileek ere badute irudipena nekazariak beti negarrez ari direla, eta bereari baizik ez diotela erreparatzen. Horiek eta askoz eztabaida gehiago argitu behar izan dituzte saltokia martxan jarri aurretik.

Solid'Arles buruzko bideoak *La part du colibri* darama goiburua. Ipuin labur honek zera dio: “Kolibreria, txori ñimiño hori, joan eta etorri zebilen oihana kixkaltzen zuen suari jaurtikiz etenik gabe garraiatzen zituen ur tantak. Gainerako animaliak harrituta zeuzkan itxaropenik gabeko ibilera hark. Kolibriak erantzen zien bazekiela berak bakarrik ezingo zuela sutea itzali. Baina berak bere zatia behintzat egingo zuela”. ■

www.argaia.com/nethurbil.php helbidean, gai honi buruzko informazio gehiago eta Interneteko loturak.



Konfiantza delako garrantzitsuena

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu, etengabe produktu berriak eta zerbitzu berriak bilatzearen bidez.

ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani kalea - 20004 DONOSTIA
e-posta: zinkunegi@euskainet.net
TEL. 943 420 624

G A R A N T I A